

Ostirala, 2010/04/23

- Kronika.net
- Argazkiak
- Elkarrizketak
- Jasota Bezala
- Inkesta eta Eztabaida
- Zerbitzu eta Helbideak
- Agenda
- Kronika Bereziak
- Dokumentuak
- Publizitatea
- Egin Bazkide

**AURREKO EDIZIOAK**  
Aukeratu nahi duzun data

- 2010
- apirila
- 22

▷ **BILATU**

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



*KRONIKA.NET*

**ASTIGARRAGA**

**Kultur etxe berria egiten hasi nahi dute datorren urtean**

**Datorren urte amaieran hasiko dira eraikitze lanak. Oraingo kultur etxeak dituen gabeziak asetzea du helburu.**

2007/12/15 - Larunbata

kultur etxe berriaren eraikuntzak suposatuko duen erronkarako prestatzen ari dela jakinarazi du astigarragako udalak prentsa ohar baten bidez. egungo kultur etxeak dituen gabeziak estali eta herritarrei kalitatezko zerbitzu hobe eskaintzea du helburu.

**gabeziak asetzea helburu**

auditorio eta erakusketa areto baten falta izan ziren, besteak beste, area 14 delako eremuan kultur etxe berri bat eraikitze proposamena eragin zutenak. instalazio berriak balio anitzeko auditorio batez hornituta egongo dira antzezlanak, kontzertuak edota zine emanaldiak eskaini ahal izateko, egungo egoitzan ez baitago funtzio horiek modu egokian egiteko espaziorik.

**liburutegi egokiagoa**

egoitza berriaren beste abantaila izango da liburutegirako egokitutako espazioa, izan ere, oraingoa baino handiagoa izango da eta zerbitzu berriak eskainiko dira, esate baterako, ikasketa gela berezia.

**batzorde mistoa eta herritarren partaidetza**

batzorde mistoa sortuko da astigarragako udalean obra eta zerbitzuetako eta kulturako batzordeetako lehendakari eta teknikoekin proiektua zehazteko. aldi berean, udalak laster komunikazio bideak prestatuko ditu herritarrek kultur etxe berriari buruz izan ditzaketen iradokizunak bideratzeko.

Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

**BILATZAILEA**

Idatzi bilaketa hitza(k)

▷ **BILATU**

**ARGAZKIAK**



▷ **IKUSI**

Momentu honetan inkestarik ez dago

▷ **Eztabaida Lekua**



GAURKO KRONIKA

